BEZEROEKIN HARREMANAK

Bezeroekiko harremana automatizatua izango da, gure plataforma lan egiteko erabiliko dugulako eta ez dugulako bezeroekin zuzeneko harreman fisikorik izango. Zerbitzu automatizatuarekin denbora aurreztuko dugu. Hala ere, laguntza pertsonala eskainiko da eta telefono bat egongo da edozein zalantza argitzeko. Horrez gain, gaur egun klimaren inguruan dagoen kezka dela eta, iruditzen zaigu ideia ona izango litzatekeela komunitate bat sortzea. Bezeroak jasangarritasunaren gaiaren inguruan jakinaren gainean jarriko genituen momenturo, jendeak gaiaren inguruko kontzientzia garatuko zuen eta gure bezeroei ingurumenean onura sortzen dutela sentiaraziko genieke.